

## ORDUAK NOLA ESAN

Zalantzak izaten ditugu askotan ordua esatean. Modu honetakoak izan ohi dira zalantzok:

1. Zeri erantsi behar zaizkio artikulua eta plural marka: orduari ala ondorengoari? Hots: *hamabiak eta laurdenak* ala *hamabiak eta laurden* esan behar da?
2. Kasu marka daramatenean ere sortzen dira zalantzak batzuetan: *hamarrak eta hogeitan*, *hamarrak eta hogeian*.
3. Gutxi erabili behar dugunean, zalantzak ditugu nola esan: *hamarrak hamar gutxitan*, *hamarrak hamar gutxiagotan*.
4. Komuntadura zalantzak ditugu azkenik: *ordu bata*-k komuntadura singularra ala plurala eskatzen du, batez ere ‘ordua gehi x minutu’ esan nahi denean?

Proposamen zehatzagoren bat egin nahian, literaturako erabilera —*Orotariko Euskal Hiztegiko* corpusetik bildua— azertu ondoren, ondorio hauek atera daitezke:

1. Orduak adierazteko, orduaren zenbakia eta plural marka erabiltzen da, besterik gabe, Hegoaldean, eta Iparraldean ere bai batzuetan:

- *Bederatziak aldean joan zen Bernardatxo berriz ere arkaitzera* (Goñi)
- *Lanak egitera etorri nintzen bostak aldean, bazkalduta* (Mattin)
- *Goizeko zortziak hirian* (Barbier).

Iparraldean ohikoena oren izena ere esatea da; Hegoaldeko autore bat edo bestegan ere aurki daiteke *ordu* izena:

- *Hamar orenak yoiteko hinkan* (M. Elissamburu)
- *Biharamuneko eguna goizeko bederatzi orenak arte* (Joannateguy).

Hala agertzen da batzuetan ondoren minutuak adierazten direnean ere:

- *Hamar orenak eta hogoi eta bi minuta ziren* (M. Elissamburu).

*Ordu bata*-ren kasuan, Bizkaialdean *ordu batak dira* nagusitzen da; Erdialdean eta Ekialdean *ordu bata / oren bata da*.

2. *Erdia* adierazteko bi joera nagusi ikus ditzakegu: artikulua eta plural marka *erdi* osagaiari bakarrik eransten dion Hegoaldekoa (eta honek emendiozko juntagailua *t'* itxuran idaztea dakar berekin gehienetan, ta forma laburtuan ere bai tarteka) eta Iparraldeko autore batzuetan ere ikus daitekeena:

- *Hamar t'erdia dira* (Mitxelena)
- *Ostera oeratu ta sei t'erditarako jeiki, bederatzi t'erditan gosaria ontziko guztieri, zer janarekin* (Anabitarte)
- *Ordubi t'erdietan arpoia sartuta* (Arrantzaleen bizitza).

Iparraldean, plural marka orduari ere eransten zaio; *erdi* batzuetan singularrean ageri da, pluralean beste batzuetan:

- *Bederatziak eta erdia, elizako ezkilatik* (J. Etxepare)
- *Argitu-eta, zazpiak eta erdiak ondoxean jo du komisarioak etxean sartzeko* (Hiriart-Urruty).

*Atlas*-erako egin diren galdeketetan ere, Iparraldean, erantzun nagusia *lauaketerdiak* da, baina horren ondoan *lauak eterdia*, eta bakanago *lau eta erdiak* ere aurki ditzakegu.

Absolutibo kasua ez bestelakoren bat hartzean, ordea, badirudi beti plurala ageri dela (*erditan*). Proposamena, beraz, Iparraldeari dagokionez, plural marka bi osagaiei eranstea litzateke: *seiak eta erdiak*.

3. *Eta laurden* esateko, berriz, zalantza nagusia artikulua orduari eta laurdenari, biei, erantsi ala laurdenari bakarrik erantsi bada, hara nola jokatu duten gure idazleek. Hegoaldekoek, *erdi*-rekin bezalaxe, azkenean bakarrik ematen dute plural marka:

- *Ilunabarrean, berriz, 8 eta laurdenetatik 9 t'erdietara, jai eta aste* (Mitzelena)
- *Hamabi ta laurdenetan* (Oskillaso).

Iparraldekoek, bietan ezartzen dute plurala, edo ordua adierazten duen zenbatzailean bakarrik:

- *Arratsaldeko hiruak eta laurdenetarik, bortzak eta laurden iri arte* (Hiriart-Urruty).

4. Hurrengo ordurako zenbat falta den adierazteko, berriz, gehienetan *gutxi* aurki daiteke:

- *Zer tenore da orai? Bederatziak hogoita-bortz guti!* (J.B. Etchepare)
- *Eguerdi laurden guti zen* (Barbier)
- *Eguardiko amabiak laurden gutxitan illargitik praille bat botako baluteke* (G. Mujica)
- *Gero, seirak amar gutxi zirala, Mirenen etxera jo dut* (Txillardegia).

*Gutxiago* ere aurki daitekeen arren, autore berak bi formak erabiltzea ere gertatu izan da:

- *Goizeko bostak laurden gutxiagotan* (Anabitarte).

*Atlas*-erako egindako galdeketan ere hauxe ageri da: *gutxi / guti* Erdialdean eta Ekialdean, *gutxiago* Mendebaldean.

5. Komunztadurari dagokionez, *ordu bata da* esango dugu, baina gainerakoetan, jakina, pluralean egingo da komunztadura: *hirurak dira*, etab.

Zalantzak, *ordu bata* gehi 'x minutu' adieraztean sortzen zaizkigu. Nola egin komunztadura? *Orotariko Euskal Hiztegi*ko adibidetegiak ez du gehiegi laguntzen, bi adibide bakarrik ageri baitira:

- *Ordu bata t'erdixak ban ~o eztozak*(J. San Martin, *Zirikadak*)
- *Zelan ordu bata t'erdixak!* (Oskillaso, *Kurloiak*).

Datu hauek ikusirik, Gramatika batzordeak zenbait gomendio aurkeztu zituen Leioako Biltzairean. Gomendio horiek, ordea, askotan bikoitzak ziren, bi modu uzten ziren aukeran. Hori zela eta, batasunerako eskea egin zitzaion batzordeari, forma bakarra gomenda zezala, alegia. Eskeari jaramon eginez, orduak emateko molde bakarra gomendatzen ahalegindu da batzordea, Leioan aurkeztu zen txostena aldatuz eta horren gainean hartu du Euskaltzaindiak erabakia.

\* \* \*

## 1. Orduak adierazteko

Aski da dagokion zenbatzaileari artikulua eta plural marka eranstea; ordu bata da salbuespena, jakina. Beraz:

- *Ordu bata da*
- *Ordu biak dira*
- *Hirurak dira...*

Iparraldean *oren bata*, *bi orenak/biak*, *hiru orenak/hirurak...*

Eta kasu-markak eranstea:

- *Ordu batean / oren batean*
- *Ordu bateko meztara joango da / oren bateko meztara joanen da*

- *Ordu bietan / bi orenetan / bietan*
- *Hiruretan / hiru orenetan...*

Bizkaian *ordubaten* “ordubete barru” izan arren, zabalduena delako gomendatzen da batasunerako *ordubatean*.

\* \* \*

## 2. *Erdia* eta *laurdena* adierazteko

### a) *Erdia* adierazteko

Pluraleko marka bigarren osagaian bakarrik ezartzea gomendatzen da batasunerako, hau da:

- *Hiru eta erdiak*                      — *Bost eta erdiak* .
- *Hiru eta erdietan*                 — *Bost eta erdietan* .

*Oren* ezartzen denean, berriz —Iparraldean maiz egiten den bezala— bi osagaietan emango da pluraleko marka:

- *Hiru orenak eta erdiak*
- *Hiru orenak eta erdietan* .

Idazkerari dagokionez, *t'erdi* da Hegoaldean erabat hedatua; Iparraldean, ordea, *eta* idazteko ohitura dago, eta oraingo erabileran *et'erdi* ere arrunta da. Horiek horrela, batasuna *eta*-ren bidetik egin behar dela uste du Euskaltzaindiak. Ahoskerari dagokionez, bakoitzak bere euskalkiko ohitura gorde beza.

### b) *Laurdena* adierazteko

Orain arte esanaren arabera, bi lekutan ager daiteke pluraleko marka, lehen osagaian edo bigarrenetan:

- Ordua + *erdiak*:                      *sei eta erdiak*
- Ordua + *-ak* + minutuak:         *seiak eta hamar*.

Bikoiztasun hori bera erakusten dute euskalkiek *laurdena* adierazterakoan: euskalki batzuetan ‘ordua + *laurdenak*’ esaten duten bitartean, beste batzuetan ‘ordua + *-ak* + *laurden*’ aukera egin dute (pluraleko marka *bietan* ezartzen duten lekuak ere ez dira falta, *seiak eta laurdenak* esanez). Euskaltzaindiak sisteman kokatzen diren bi formak libre uztea erabakitzen du. Hortaz, *laurden*, *erdi* bezala erabiltzen den lekuetan,

- *Hiru eta laurdenak*,

esango dute. Minutuen arabera erabiltzen dutenetan, ostera,

- *Hirurak eta laurden*.

Biok ematen dira ontzat batasunerako.

\* \* \*

## 3. Zenbat minutu gutxi adierazteko

Puntu honetan, *gutxi/guti* eta *gutiago*, biak onartzea proposatzen du Euskaltzaindiak. Nolanahi ere, gogorarazi nahi du *gutxi/guti* dela hedatuena:

- *Hamarrak hamar gutxi dira / hamarrak hamar gutxiago dira*
- *Bostak laurden gutxitan / bostak laurden gutxiagotan*.

\* \* \*

## 4. Zenbat minutu gehiago adierazteko

Ordua gehi zenbat minutu igaro diren adierazteko, erabilerak erabilera, Euskaltzaindiak kasu-marka singularrean ematea gomendatzen du:

- *Seiak eta bostean elkartuko gara*
- *Hamarrak eta hamarrean*
- *Laurak eta hogeian*.

\* \* \*

5. Ordua zenbaki bidez adierazi nahi denean

Ordua zenbaki bidez adierazi nahi denerako honako gomendioak ematen ditu Euskaltzaindiak:

a) Tauletan zenbaki, xifra hutsak ezarri, kasu-markarik gabe. Bilbotik Donostiarako autobusen irteera orduak, esaterako, honela adieraz daitezke:

09:00  
10:15  
12:30

Edo denda bat zein ordutatik zein ordutara dagoen zabalik:

— *Goizetan* 10:00 - 13:30  
— *Arratsaldeetan* 16:00 - 19:30

b) Kasu-marka erantsi nahi denean, aukera bat baino gehiago egon daiteke: kasu-marka soila erantsi, beti pluralari dagokion forma erantsi, edo kasuan-kasuan dagokiona ezarri. Hurrenez hurren:

15:05n                      15:05etan                      15:05ean

Euskaltzaindiaren iritziz, egokia da orduak esateko eman diren gomendioak zenbakietan ere betetzea. Hortaz, ordui pluraleko kasu-marka ezarriko zaie, eta minutuei singularrekoa (behar denean lotura bokala erantsiz):

15:00etan	15:00etara / 15:00ak arte	15:00etatik
15:01ean	15:01era / 15:01 arte	15:01etik
15:02an	15:02ra	15:02tik
15:03an	15:03ra	15:03tik
15:04an	15:04ra	15:04tik
15:05ean	15:05era	15:05etik
15:15ean	15:15era	15:15etik
15:30ean	15:30era	15:30etik

c) Irakurri, berriz, xifra horiek bere horretan irakurtzeko tradizioz eza kontuan harturik, hizkera arruntean, egunerokoan (irradi, telebista, etabarretan), honela irakurtzea gomendatzen da:

— *Arratsaldeko hiruretan*  
— *Arratsaldeko hirurak arte*  
— *Arratsaldeko hirurak eta bostean*  
— *Arratsaldeko hiru(rak) eta laurdenetan.*

Era berean, erabilera informalean, 00:00, *gaueko* nahiz *gauerdiko hamabiak* irakurriko dugu. Halaber, 00:30, *gauerdiko* edo *gaueko hamabi eta erdietan*, e.a.

Erabilera formalagoetan, ordea, honela irakur daitezke, zenbakien arteko bi puntuen ordeaz *eta* ahoskatuz:

— *Hamabostetan*  
— *Hamabostak eta bostean*  
— *Hamabostak eta hamabostean*  
— *Hamabostak eta hogeita hamarrean*  
— *Zero orduan / orenean*  
— *Zero ordua / orena eta hogeita hamarrean.*

d) Azkenik, erdibideko erabilerak ere ikusten ditugu behin baino gehiagotan, batez ere egitarau, kartel eta horrelakoetan: hots, orduak hamabika kontatuak *goizeko*, *arratsaldeko*, *arratseko* nahiz *gaueko* erantsiz. Hala egin nahi denean, honela idaztea gomendatzen da:

— *Goizeko 10etan*  
— *Arratsaldeko 5etan*  
— *Goizeko 11,30etan / goizeko 11 eta erdietan*  
— *Iluntzeko 8etatik 11ak arte.*

**Horrenbestez, hau da Euskaltzaindiaren erabakia orduen idazkerari buruzkoa:**

- 1. Orduak honela ematen dira:** *ordu bata, ordu biak, hirurak, laurak, bostak, seiak, zazpiak, e.a. Ordu hitzaren ordeaz oren ere erabil daiteke: oren bata, bi orenak / biak, hirurak, e.a. Eta honela deklinatu: ordu batean, bietan / ordu bietan / bi orenetan, hiruretan, e.a.*
- 2. Erdia honela adierazten da:** *ordu bat eta erdiak, ordu bi eta erdiak, hiru eta erdiak, bost eta erdiak, ordu bat eta erdietan, ordu bi eta erdietan, hiru eta erdietan, bost eta erdietan, e.a. Gauza bera oren hitzarekin.*
- 3. Laurdena honela adierazten da:** *ordu bat eta laurdenak, oren / ordu bata eta laurden, ordu bi eta laurdenak, oren / ordu biak eta laurden, hirurak eta laurden, hiru eta laurdenak, hirurak eta laurdenetan, hiru eta laurdenetan, bostak laurden gutxi(ago), e.a.*
- 4. Minutuak:** *hamarrak hamar gutxi, hamarrak hamar gutxiago, hamarrak hamar gutxitan, hamarrak hamar gutxiagotan, seiak eta bostean, laurak eta hogeian, hirurak eta hemezortzian, e.a.*
- 5. Zifretan ematen direnean, bi punturekin bereizten dira orduak eta minutuak, eta bakoitzeko bi zifra erabili behar dira beti:** *00:12, 12:10, 09:25, e.a. Deklinatzen direnean, orduei plurala erantsi, eta minutuei singular marka, dagozkien lotura bokalekin: 15:00etan, 15:03an, 15:04an, 15:30ean, e.a. Irakurtzeko orduan hobe da, hala ere, honela irakurtzea: hiruretan, hirurak eta hiruan, e.a. Erabilera formaletan ontzat ematen dira, dena den, hamabostak eta bostean, hamabostak eta hamabostean, e.a.*
- 6. Egitarau, kartel eta horrelakoetan ez da eragozpenik erdiko bidea hartzeko:** *arratsaldeko 5etan, goizeko 11,30etan, iluntzeko 8etatik 11k arte, arratsaldeko 3etatik gaueko 12ak arte, e.a.*

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995eko ekainaren 30ean onartua)